



PUBLIKOTASUNAREN INDARRA

**Irun Bizitzeko, Hazteko eta
Garatzeko**


elkarrekin
Podemos   

1. IRUNGO AUZOETAN APARKATZEN



Urte dezente pasa dira Irunek **aparkalekuaren pribatizazioa** onartu zuenetik, lurzoruaren gaineko negozio-eredu horrek ez baititu arazoak konpondu. Ez dugu ordaindu nahi enpresa handi baten onura ekonomikoa eta aparkalekua gure kasa kudeatu nahi dugu.

PROPOSAMENAK:

- **TAOren kudeaketa publikoa, lanpostuak bermatuz**
 - TAO eremuak berrikusteko prozesu parte-hartzaile bat egitea.
 - TAO plazen %80 egoiliarrentzako aparkaleku bihurtzea.
- **Lurpeko aparkalekuen kudeaketa publikoa, lanpostuak bermatuz.**
 - Aparkalekuek mantentze-lanen kostua izango lukete, Pinudiko aparkalekuak bezala (30 euro hilean).
- **Garraio publikoa** sustatzea eta maiztasunak handitzea.
 - Garraio publikoan **deskontuak** sustatzen jarraitzea.

Mugikortasun publiko eta jasangarrirantz bideratzen gaituzten konponbideak behar ditugu.

2. IRUNGO GIZARTE KOHESIOA INDARTZEN

Segurtasuna da Irungo herritarren kezka nagusietako bat. Horri hainbat ikuspegitatik heldu behar diogu, herritarren parte-hartzearen, gizarte ongizatearen, kulturaren, hezkuntzaren eta gazteriaren aloetatik, betiere **prebentzioaren, zehapenaren eta gizarte-kohesioaren** arteko oreka bilatuz.



PROPOSAMENAK:

lido horretan, hiru erronka planteatzen zaizkigu:

- **Eskubideetan** oinarritutako politika publikoak sustatzea eta **auzotarren arteko loturak** sortzea.
- Segurtasunari dagozkion prebentzio eta partaidetza komunitarioaren irizpideak aintzat hartzea.
- Segurtasuna ez da ulertu behar alderdi politikoek elkarri jaurtitzen dioten arma gisa.

Nola lor daiteke hori?

- **Segurtasun eta Bizikidetzarako Batzorde Iraunkorra deszentralizatu** egin behar da auzoei begira, betiere lankidetzan auzo elkarteekin eta eragindako kolektiboekin.
- Udaleko arloetan dauden programak eta planak Batzorde horretara **bideratzea**, auzo elkarteek eta gainerako elkarteek ezar ditzaten.
- **Azterketa-tresna egokiak eskainiko ditugu** auzotarrek duten segurtasun maila ezagutzeko, Batzordearen beraren erantzunak hobetuko dituzten datuak biltzeko xedeaz.
- Arazoei modu partikular eta espezifikoa helduko diegu, erantzunak sortzen diren eskaerei doituz.

Eta zer gertatzen da Udaltzaingoarekin?

- **Udaltzainen plantilla indartu** behar da Udalak egindako LEP baten bidez.
- **Udaltzaingoen instalazioak** egokitu eta hobetu egin behar dira.

Segurtasuna ikuspuntu askotatik bideratu behar da, arreta prebentzian jartzeko eta gerta litezkeen gatazkak saihesteko.

3. ETXEBIZITZA SOZIALA, INOR ATZEAN EZ UZTEKO

Irunvin ikusi dute lehen etxebizitza alokatzeko edo erosteko gaitasun ekonomiko txikia dagoela, batez ere inflazioagatik eta etxebizitzaren merkatua ez kontrolatzeagatik. Gehien nozitzen dutenak egoera prekarioan dauden gazteak dira, 40

urtetik gorakoak eta familia zaugarriak, etorkinak eta guraso bakarrekoak, eta, oro har, lan prekarioa duten guztiek. Irunviren esperientziaren arabera, **alokairu erregimeneko etxebizitza publikoak sustatzea** da onuragarriena.



PROPOSAMENAK

- **Alokairu sozialeko etxebizitzaren parke publikoa eta pribatua sustatzea.**
- Laguntzak eta dirulaguntzak indartzea gazteen emantzipaziorako, guraso bakarreko familientzat eta familia zaugarrientzat .
- **OHZren gehienezko errekarria etxebizitza hutsei eta jabe handiei**, azken hauek ez baitira pertsonak, baizik eta bankuak eta putre-funtsak.

Irunvi **bitartekari bihurtuko dugu alokairu soziala bultzatzeko**, honela:

- Etxebizitza hutsak dituzten jabeek usufruktuan lagatuko lizkiote Irunviri lagapen-kontratu osoan bermatuko den hileko errentaren truke.
- **Laguntza-lerro bat** ezarriko litzateke, maizterrek ez ordaintzeko diru-sarreren %30 baino gehiago alokairuaren truke.
- Irunvik fidantzaren ordainketa aurreratzen lieke izena ematen dutenei, eta fidantza horren mailegua 24 hilabeteren buruan itzuli ahal izango litzateke, interesik gabe.
- **Irunvik aholkularitza-programa bat izango luke jabeentzat eta maizterrentzat.**

Gure konpromisoa da etxebizitzaren zerbitzu publikoa indartzea, beste tresna bat doituz eta alokairuko etxebizitzaren parke publikoa bultzatzen jarraitzea

4. OSASUN PUBLIKOA DEMOKRAZIA DA

Osakidetza osasun publikoaren eredu izan zen, EAJren pribatizazio politikak nagusitu arte. Merkeegi saldu dute eta hala egiten jarraitzen dute, nahiz eta gu engainatzen saiatu. **Osasun publikoa demokrazia da.**

PROPOSAMENAK

- Oñurreko hirugarren anbulatorioa
- **Osasun Publikoko Plan Integrala**, egungo egoeraren diagnostikoa barne dagoela eta gure osasunaren orainerako eta etorkizunerako ibilbide-orria ezartzen dituen.
- **Langileetan inbertitzea** profesionalen arteko belaunaldi-erreleboa konpontzeko.
- **Osasun Mentaleko Udal Plan bat** egitea, osasun mentalaren prebentziorako eta zaintza komunitariorako, neurri espezifikoak inplementatuz; hala nola profesional espazializatuak inplikaturik ikasgeletan.

Osasun hobea merezi al du aparteko ordainketa egiten duenak? **EZ**



5. IRUN FEMENINOAN ERA BENETAKO BERDINTASUNEAN

Irunek aurrera egin du berdintasun politiketan udal gobernuan gaudenetik. **Emakumeen Etxea** bezalako proiektuak aurrera atera dira, eta **indarkeria matxistaren protokoloa** ere saritu du FEMPeK. Horrek erakusten du bide egokian gaudela.



PROPOSAMENAK

- **Zaintzaren Sistema Publiko bat sortzea**, zaintzak profesionalizatuz eta emakumeek zaintzak doan beren gain hartu behar dituztela dioen kulturarekin hautsiz.
- Sortu berri den Emakumeen Etxeari **edukia eta baliabideak** emango dizkiogu, hasieratik zerbitzu guztiekin ireki ahal izateko.
- **Bizitza independenteko programak** ezartzeko lan egingo dugu, **aniztasun funtzionala** dutenei ahalik eta modu autonomoenean bizitzeko aukera emateko.
- **Irungo V. Berdintasun Planaren zirriborroa lantzeko bideratu zen parte-hartze prozesua aintzat hartuko dugu**, bertan onartu zena udalean ere onar dadin.
- **Emakumeen oinarrizko kirola** bultzatuko dugu, hirian emakumeen **erreferenteak** sortzeko eta kiroleko genero-desorekei aurre egiteko eta jazarpen-egoerak saihesteko.
- **Eremu publikoa** planifikatzeko neurriak ezartzen jarraituko dugu, genero- eta berdintasun-irizpideekin, espazio misto balioaniztunak sortuz, non espazio berdeak, irisgarriak eta ekipamenduak konbinatuko diren, pertsona guztien beharrak asetzeko

Ez gara konformatzen: gehiago nahi dugu. **Bidea urratu besterik ez dugu egin.**

6. IRUNGO AUZOETAN INBERTITZEA

Auzoetan ditugun instalazioak aprobetxatuko ditugu horiek hobetzeko eta gaur egun ez dituzten baliabideez hornitzeko. Bide publikoan inbertituko dugu, kaleak auzotarrentzat doitu eta dauden **arkitektura oztopo guztiak kenduz**. Auzoetako aisialdirako eta gozamenerako guneak egokitu egingo ditugu, bizitzaz betetzeko.

7. ENERGIAREN ENPRESA PUBLIKOA

Energia sortzeko eta banatzeko enpresa publiko baten sorrera sustatuko dugu, bai eta kooperatibak eta Energia Komunitateak sortzeko eta banatzeko enpresa publiko bat ere, tokiko **Energiaren Subiranotasun Jasangarrirako Plan** bat abian jarritz, eraikin publikoen estalkiak, etxebizitza komunitarioak, industrialdeak, pergolak eta markesinak aprobetxatuz eta **Irugurutzetako** zentral hidroelektrikoa berrituz, besteak beste.

8. PRESTAKUNTZA PUBLIKOAREN ESKAINTZA ADUANA ZAHARREAN

Aduanaren eraikina eraberritu eta birgaitu ondoren, **goi mailako prestakuntza-zikloak** eta Irungo **garapen ekonomikora** bideratutako **unibertsitateko graduak eta graduondokoak** eman ahalko dira gune horretan. Bidasoa bizirik tokiz aldatuko dugu, Aduana Zaharraren inguruan sortuko den ehun ekonomikoan zuzenean parte har dezan.

9. GAZTEAK EMANTZIPATZEKO PLAN BAT EZARRI ETA

ASOZIAZIONISMOA BULTZATZEA

Gazteak Emantzipatzeko Plan bat ezarriko dugu, eta gazteei zuzendutako enplegu-politika publikoak bultzatuko ditugu, gazteak emantzipatu eta **bititza-proiektu duin bati** ekin ahal diezaioten. Asoziazionismoa bultzatuko dugu, Irungo elkarteen ahuna indartzeko eta aktiboa izan dadin hiriaren garapenean.



que sea activo en el desarrollo de la ciudad.

10. BIZITZA-PROGRAMA INDEPENDIENTEAK EZARRI, ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENEI BIZITZA ERRAZTEKO



Bititza independenterako programak ezarriko ditugu, **aniztasun funtzionala** dutenei ahalik eta modu autonomoenean bizitzeko aukera emateko, eta, horretarako,

beste aukera batzuk bilatuko ditugu, egoitza batean edo senideen karguan egotetik bizimodu autonomoago batera igaro ahal izateko, non **pertsona eta haren premiak zein lehentasunak erdigunean egongo diren.**

11. AUZOETAKO KULTURA ETA KIROLA SUSTATZEA, ETA EUSKARA ERE BAI

Kultura deszentralizatuko dugu, auzoetara helaraziz, jendeak hurbiletik gozatu ahal izan dezan udalak sustatzen dituen jardueraz. Gaur egun dauden kirol-instalazioak aprobetxatuko ditugu, eta horiek **hobetzeko inbertsioa** egingo dugu, auzotar guztiek erabil ditzaten. **Kulturaren, kirolaren eta jolasguneen** sinergieaz baliatuko gara euskararen erabilera sustatzeko.

12. TOKIKO MERKATARITZA BABESTEKO NEURRIAK EZARTZEA. ZERGA BEREZIA AZALERA HANDIEI, MERKATARITZA-ZENTROEI ETA KATEEI

Tokiko merkataritza babesteko neurriak sortuko ditugu, azalera handien merkataritza-zentro eta kateen gaineko zerga barne hartuko dutenak, eta **enpresa txiki eta ertainentzako** zerga-ordenantzetan onurak ekarriko dituztenak;

gainera, diru-bilketa horrekin, merkataritza txikia bultzatzeko eta babesteko politika publikoak gaituko ditugu.

13.- ANIMALIAK EDUKITZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

Animaliak edukitzeari buruzko ordenantza berrituko dugu indarrean dauden legetara egokitzeko, animalien ongizatea txertatuz, eta **elkarte animalistek egiten duten lana** aintzat hartuko dugu, CES metodoa berme osoz aplikatzeko behar diren baliabideekin. **Animalien babesleku publiko bat sortzea** bultzatuko dugu, eta udalean **espezializatutako langileak** txertatuko ditugu animalien ongizatea kudeatzeko.



ERANSKINA – IRUNGO ENTZUTE PROZESUA

Urte eta erdiko **entzunaldi-prozesuan** jasotako hainbat proposamen bildu ditugu, **hurrengo agintaldian (2023-2027)** garatzeko xedeaz.

- **Ordenantza bat**, kolektibo eta elkarrekin lagatzen zaizkien udal lokalak arautzeko.
- Epe ertain eta luzerako **Kultura Programa** bat sortzea, herritarrekiko partaidetzarekin.
- Bidasoa bizirik entitatearen funtzionamendua aldatzea, **negozio teknologikoaren garapenaren** egungo errealitatera egokitu dadin.
- Zamaletarako ordutegi doituak, **aparkaleku eta zamaletarako tokiak alde aurretik eskatuta**.
- Merkataritza sustatzeko bonuak ez dira nahikoak eta aparkatzeko lekua beste modu batean kudeatzeko planak behar dira, **hurbileko merkataritza bultzatzeko**.
- **Irigarritasun Unibertsaleko Plan bat** egitea, hiria irigarritasun unibertsal kognitibora egokitzeko.
- Elkarte eta kolektiboentzako dirulaguntzak argitaratzea **urtearen erdia baino lehen**, amaieran eman ez daitezten.
- **Memoriaren Kolunbarioa** eraikiko dugu, senideek Gerra Zibileko eta frankismoko biktimen gorpuzkiak bertan kokatu ahal izan ditzaten.
- **Memoria Demokratikoaren espazio iraunkor bat sortzea** Aduana Zaharraren inguruan, hiriaren memoria historikoaren leku adierazgarri eta esanguratsu gisa.
- **Lanbide Heziketa duala** sustatuko dugu Irun Ekintzan programaren bidez eta Udalak hirugarrenekin dituen harremanen bidez.

